

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Agenda 2030: Ehungintza eta moda industria

Egilea

Leire Fernández Sánchez

Gradua

Negozioen Kudeaketa

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

- 5. Genero berdintasuna,
- 6. Ur garbia eta saneamendua,
- 8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa,
- 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsiak

Laburpena

Gero eta gehiago dira Agenda 2030en aurrean irudi positiboa erakusten saiatzen diren moda-enpresak. Gradu Bukaerako Lan (GBL) honek modaren industriako 2030 Agenda aztertzen du, deslokalizazioaren fenomenoak, giza eskubideen urraketa eta kutsatzaileenetako bat den sektorea. Azterketa hori egiteko, Nazio Batuek 2015ean ezarritako Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) aztertuko dira, batez ere, modarekin harreman estuagoak dutenak. Gainera, modaren enpresa adierazgarrienetako eta garrantzitsuenetako bat aztertuko da, hala nola Inditex, eta arreta berezia jarriko zaio Urteko azken Memoriari baita enpresa honek 2030 Agendarekin duen inplikazioari.

2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Gradu Bukaerako Lan (GBL) hau UPV/EHU i3KD Laborategi deialdiko "Fenomenoak, erronkak eta ikerketa, Agenda 2030ean laguntzeko bideak, Negozioen Kudeaketa gradutik abiatuta" izeneko proiektuaren parte da. Proiektuan lan egiten duen taldea hauek osatzen dute: irakasleak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak eta ikasleak, Negozioen Kudeaketako Gradua eta Nazioarteko Garapen eta Lankidetzako Masterra. Proiektuaren erronken artean, Eraldaketarako Hezkuntza, Unibertsitateak 2030 Agendan duen papera eta Enpresak 2030 Agendan duen papera daude. Hain zuzen ere, GBL honek modaren sektoreko enpresaren



azterketan jartzen du arreta, Inditexen papera eta Garapen Iraunkorrear duen eragina aztertzen jarraitzeko. Hortaz, ehungintza eta modaren industriako sektorea lotutako arazoak jorratzeko, hiru GIHetan sakonduko da, hala nola, GIH 12, GIH 8 eta GIH 6. Gainera, ikerketa honek helburu horiek praktikan betetzen diren aztertzen du. Bestalde, Inditexen jarrera 4 GIHrekin erlazionatzen da eta baita enpresak helarazten duen irudi iraunkorra errealitatearekin bat egiten duen ikertu egin da.